

Doinua eraikin berriaren beharrean

Legazpi » Urtetik urtera Doinua musika eskolan ikasle kopuruak gora egiten duen heinean, espazio eta musika lantzeko baldintza egokien falta dutela adierazi dute.

ALEX AREIZAGA

Legazpiko Doinua Musika Eskola espazio beharrean aurkitzen da. 17 irakasle eta 400 ikasle biltzen ditu, eta egun erabiltzen duten eraikina ez ditu musika lantzeko beharrezko baldintzak betetzen.

20 urte eraikin berean

1979an hasi zuen ibilbidea Legazpiko Musika Eskolak, nahiz izen hori 1992an hartu zuen Logse dekretuarekin. Egoitza ugari izan ondoren, azken 20 urteak egun dagoen eraikinean daramatza.



Gitarra elektrikoa ere erakusten dute Doinua musika eskolan. ALEX AREIZAGA

Plan pedagogikoaren eta egoera sozioekonomikoaren hobekuntzaren eraginez, egun 400 ikasle ditu musika eskolak eta instrumentu sorta zabala erakusten da bertan. Horrez gain, musika mintzaira ere irakasten da, lehenago solfeo izenez ere ezagutzen zena. Azken bost urteetan, batez ere, izan den ikasle kopuruaren igoera

handiak behar berriak izatera eramandu ditu, haizezko instrumentuak, bateria edota gitarra elektrikoa erakusten baitituzte, besteak beste.

Intsonorizatorik ez

Eskolak ez du behar bezalako intsonorizazio neurririk, eta era honetara instrumentu desberdinak

alboan dauden geletan erakustea lan nekeza bihurtzen da. Horri eraikinean bizilagunak ere badirela gehitu behar zaio, eta haiekin akordioetara iritsi behar izan da musika eskola; astegunetan gaueko 21:30etik aurrera debekatua dago klaseak ematea. Horrez gain, asteburuetan ere eskolak ematea debekatu dute, nahiz eta arazoa nolabait konpontzeko asmoz kultur etxean gela bat egokitu duten larunbatetarako.

Aukera desberdinak aztertuz

Musika eskolako zuzendari Aitor Madinak azaldu duenez, jarduera horiek aurrera eramateko musika egiteko egokitu dauden gela batzuk behar dituzte.

Alderdi politiko guztiakin elkarriketatuta ziren musika eskolako kideak euren beharrak adierazteko eta alderdiek euren jarduneari kontuan izan zitzaizkion. Guztiak egin dute bere eskolaren egoera, baina guztiak onartu dituzte zailtasunak helburuak lortzerakoan.

«Musika egingo den egoitza bat ezartzeko, herriko erdigunean egon behar duen eraikin batean egin beharko litzateke», gaineratu du Madinak.

Udalarekin ere harremanetan jarrita daude, eta egoitza berria jartzeko aukera desberdinak daude jada mahai gainean, horien artean Bikuña jauregia edo Patricioren etxea izenarekin ezagutzen dena, esaterako. Aukera horiek eztaba da sortu dute alderdi politikoen artean, bakoitzak bere proposamena babesten baitu eta egun aukerak aztertzen dihardute.

Irakasleen arteko elkarbizitzan ere eragiten du gelek musikarako duten baldintza egokien faltak, instrumentu batzuen soinua besteenari gainjartzen baitzaie ordu bereko entseguetan. «Lehenbailehen behar dugu egoitza bat gure beharrak asetzeko, umeak eta gurasoak gustura etortzeko, eta irakasleok ere lana egin ahal izateko baldintza aproposak izateko», nabarmendu zuzendariak.



800 lagun inguru Aizkorriin barrena

LEGAZPI » 800 pertsonak hartu zuten parte herenegun 400 Urtez Aske dinamikaren barruko Aizkorriin Barrena mendian martxan. Eguraldi paregabea egin zuen, eta ibiltariak gustura ibili ziren Brinkolatik Aizkorriin

bidean. Bi ibilbide zituzten, luzea eta motzagoa, eta biek ala biek Brinkolan zuten bai hasiera eta baita helmuga ere. Amaieran, gainera, otordua eskaini zitzaion parte-hartzaileei. JOXEMARI OTXOA

Laburrak

Nortasun Agiria berritzeko aukera, azaroaren 3an

ORDIZIA » Nortasun Agiria berritzeko hurrengo txanda azaroaren 3an emango dituzte Ordiziako Udalean. Egun horretan azaroaren 17an eta 19an (astelehena eta asteazkena) berritzeko emango dute ordua, hain zuzen ere. Bi egunetan karneta egin behar duen pertsona bera joan beharko da Beasaingo udaletxera. Txanda hartzeko Ordiziako Udalaren arreta bulegora joan behar da azaroaren 3an. Interneten bidez, berriz, www.beasain.net webgunean ere har daiteke txanda. Norbere datuak eman eta txandarekin batera jasoko dute Beasainera eraman beharreko agirien zerrenda.

Jubilatuentzako zinema emanaldia Herri Antzokian

ORDIZIA » Kutxak eta Ordiziako Udalak elkarlanean antolatuta, zi-

nema emanaldia izango da ostira-lean, urriak 17, Ordiziako Herri Antzokian, 18.00etan. Doanekoa eta herriko jubilatuei eta pentsidunei zuzendua izango da. *Siete mesas de billar francés* pelikula eskainiko dute, eta aretoaren aulki-dukiera mugatua izanik sarrerak Jubilatue-nan edo Barrena kultur etxean jasoko beharko dira aurrez.

Transgenikoei buruzko hitzaldia Ordizian

ORDIZIA » *Transgenikoak eta nekazaritza ekologikoa* hitzaldia egingo du Enrike Gisasolak gaur, Goierriko Nekazaritza Ekologikoaren I. Hamabostaldiaren barruan. Ordiziako D'elikatzuz zentriari da hamabostaldiko lehenengo hitzaldi hori, gaur 19:00etan. Era berean, hamabostaldi osoan zehar, hau da, urriaren 11tik 25era bitartean, argazki erakusketa dago jarrita D'elikatzuz, *Bizitza ekologikoa gure eskura* izenpean.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Goierriko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
goierri@goierrikohitza.info / Tel.: 943-16 00 56